

## MULHACEN ZAHARRA GERO ETA ZAHARRAGO



Los tres colosos de Sierra Nevada: Alcazaba, Mulhacén y Veleta (desde el Horcajo).

### Jexux Aizpurua


**A**LVAREZ DE SOTOMAYORko soldadu-kanpamenduko jende-hotso baretzen ari da ilunabarraren azken kolpeen gibelean, baina bihar igandea denez, Almeriako militarpean gaudenok asmo bat dugu geure buruetan: gure aitzinean dugun gailur horretara joan behar diagu, esaten dutenez, hortik Granada herria ikusten omen duk eta.

### Ez mendi eta ez gailur

Horrelaxe hasi zen gure asmo xume hura mamitzen. Meza ondoren irten ginen hirukote bat, egunerako anoia harturik. Ez zen gauza haundirik izango baina mendiarenganako erakargarritasunak bultzatzen duenean, alferrik dira kontuak.

Hondarrezko mendietan zahar gindoazen, bide jakinik gabe eta beroaren beroaz itotzeko larrian. Amaitzen ez ziren mendizirrikitu

Vertiente alpujarreña de Sierra Nevada (desde Pampaneira).



Fotos: Luis Alejos.

haiek Oesteko filme haiek gogorazten zizkiguten, eta ernai gindoazen une batetik bestera bazterren batetik indioen bat edo pistolero zekenen bat azaltzeko beldurrez. Eguerdirako goseak aiekatzen geunden eta batez ere, egarriturik, Itzal eske hastea alferrikakoa zenez, hainbeste ur sortzen zuten Sierra Nevadako mendi haiek ur preziatu hura nora isurtzen zuten eztabaidan hasi ginen; batzuk zuzenean itsasora joango zirela, besteak Ifarraldera, hura zen komerial! Hala-

ko batean, ordea, laranjadi eder eta berde bizi-bizi bat agertu zitzaigun aurre-aurrean, basamortuko oasia liluragarri bat lez. Gure egarria asetzeko a ze mahuka! Finkazainak harrapatu gintuen baina errukituta edo, nahi adina jateko baimena eman zigun.

Hantxe amaitu zen mendiaren magalean gure espedizioa. Ez mendi eta ez gailur, amets zapuztuen mundutik bagentoz bezala itzuli ginen kanpamendura, alferrikako bidaia hark samindurik, 1972.ko udaberria zen.



«La tierra llama a la gente.  
Tú que has sido y eres  
vida, calor y fuente.  
¿Por qué te hallo siempre solo  
donde el mar se hace presente?  
Miras arriba, miras abajo,  
miras al Africa enfrente  
Huyes y huyes de la muerte  
para que un día cercano  
la vida tu camino encuentra.»

*El moro Zaindíguez*

**Perspectiva  
sobre el cerro de los  
Machos, Alcazaba y  
Mulhacén (desde  
el Veleta).**



## Hamasei urtetako etenaren ondoren

1987ko udak eman zигun aspaldiko bide-ten hari jarraipena emateko aukera. Itsasaldeko nagikeria eta giro epelak utzi eta Lantaróndik gora, inguru haietako herririk altuena den Trevéleza jo genuen, behetik ia 50 kilometrotako maldak igaro behar dira, ordea, bertara iristeko. Bideko herrietan Alpujarretara ongi-etorri adieraziz iragarki haundiak. «Pampaneira La Alpujarra. Viajero, quédate a vivir con nosotros».

Trevélezen ez da jende asko bizi, larehunen bat lagun, eta dirudienez, emigrazioan aurkitzen da bertako bizilagun sail bat.

Kanpinga aurten ireki dute eta leku egokian aurkitzen da mendi-irteera batzu egiteko. Nahi izanez gero, gidari eta astoak ere aloka daitezke.

## Gailurrerako eguna

Txirriten gaueko soinua amaitu ondoren, goizean goizik irten ginen eta bezperan herritar batek esan zigun eran, goiko auzotik gora jo genuen, artean eguzkia bazterrek ezin esnatuz zebilela. El Chorrillo zen gure helburua. Goiko iturrian kantinplora bete eta gora. Herri pobrea baina uraren bidez zertxobait bederen aberastua, txerriak hazten ematen duten denbora eta ondoren urdaiaz-pikoak ondu.

Ordubete barru bidez galdu gara eta oso goian diren saroi batzutarra heldu gara, bada babarrun motxa, sagarrak etabar, ganaduhotsa ere bada, behiak eta ahuntzak. Saroi honetakoa da bide gehiengan gure atzetik etorri den zaldizkoa. Kontu-kontari egon gara, baina ez du sinesten Mulhacena goazenik, han goian dagoela badaki baina... Orain lotara behera joaten da, baina garai batetan bertan egon ohi ziren. Bidean usaidun lore anitz, txilarrea eta harria. Gorago eta lehorrago; oreaturik daukagu eguraldia eta eskerrak! Bidean arimarik ere ez, eta sekulan iritsiko garen itxurarik ez. Otso antzeko zakur izuti bat azaldu-izkutatu zaigu. Tortolak eta untxiak, oreinak ere, hor doaz

isil-isilik mailoz-mailo. Kostata baina iritsi gara El Chorrillora. Bukatu dira ordurarteko isiltasun eta pakeak. Zibilizazioaren aztarrenak hasi dira jaiotzen, Capileiratik datorren mendipistan gaude. Puntu honetatik 7 kilometro daude gailurrera eta han azaltzen diren kotxezaleei harrigarria iruditzen zaie leku haietan bi lagun mendizale ikustea, horietako batek ogi bat ere eman digu, ez diogu ezezkorik esan noski.

Azken pausoak nekagarriak izan dira, ilar-gilur arre eta idor honetan. Mendi barrenean jendea itsas-hegitan badago, aide hotza eta bortitza gailurrean. 3.482 metrotan gaude eta dagoeneko arratsaldeko hirurak eta laurden dira. Igoera nekoso izan bada, jaxxera ez da motelagoa izan.

Bideko aurkikontzarik bitxierna zera izan da: garia eta oloa jotzeko dituzten edo zituzten harriz egindako larrain edo plazatxoak. Forma askotarikoak daude, baina bat borbil-borobila ere topatu genuen. Berriz ere,

herri inguruan gaude eta goiko auzoko kale-zirrituek bidaiaren amaierara eraman gaituzte. Mulhacén urrun bazen, bide zaharretatik igoz lortu dugu gaina zapaltzea.

Lotarakoan dantzan dabiltza oraindik arabe-usaidun doinu beroak.

## RESUMEN

**U**N primer intento en 1972 que quedó en una especie de marcha de aproximación en busca del agua.

En verano de 1978 la pareja de montañeros duerme en Trevélez, madrugada y asciende hacia el Mulhacén.

Aroma de la vegetación mediterránea y la visión de animales en silencio... que se rompe en El Chorrillo, al entrar en la pista que viene de Capileira y que en siete kilómetros les lleva a la cumbre de Sierra Nevada.

